

leihatila

Jesus M. Larrazabal

EHUko irakaslea


Ontario nagusi Quebecen

■ Ekainaren 2an hauteskunde orokorrak izan dira Kanadan. Eta aurreikusten zenez, Alderdi Liberala atera da garaile, 301 jarlekutatik 155 lortuz. Aurpegi alaiz eta quebecarrek ingelesez hitzegiten duten era ilunean hitzeginez azaldu zen telebistan Jean Chretien buruzagi liberala. Baina ez zuen pozik egoteko motibo handirik. Garaiz aurretik hautesleak deitu eta justu-justu irabazi. Gainera, oposizioko lehen alderdi Erreformaren Alderdia bihurtuz, 60 jarlekurekin. Hain zuzen, Preston Manningek zuzentzen duen politikarik gabeko alderdi eskuindarra, kanpaina osoan argi geratu baita antiebecismo radikala dela alderdi honen ardatza. Eta halaxe eskuratu ditu bere jarleku guztiak Mendebaldean.

Kanada politikoki erabat zatituta atera da hauteskunde hauetatik. Liberalak Ontarion dira nagusi, eta bertako 103 jarlekutatik 101 lortu dituzte. Ontarioren indar ekonomikoa Kanadaren barruan begien bistakoa da (EEBBekiko lotura barne), baina hortik Kanada osoa gobernatzea gehiengoaren jarlekuetatik hirutik bi dituztelako beste kontu bat da, errepresentazio politikoa desitxuratu egiten duenez. Liberalen ondoan, beste bi alderdi tradizionalistek ez dute indar askorik, eskuineko Kontserbadoreek 20 jarleku eta ezker moderatuko Alderdi Demokratiko Berriko sozialdemokratek 21 lortu baitituzte. Quebecen Blokeak 75 jarlekuetatik 44 eskuratu ditu, Lucien Boucharden gidaritzapean, botuen sostengua gutxitu egin bazaio ere, kontserbadore eta liberalen onerako. Bouchard ez da Parizeau. Azken orduan heldutakoa da Quebeceko nazionalismora eta, jakina denez, subiranotasunaren arazoan formula moderatuak erabiltzearen aldekoa. Zalantzarik gabe horrexegatik ia irabazi egin zuen 1995eko urriaren 30eko erreferenduma Quebecoko subiranotasunaz, botuen ehuneko 49,4 lortuz. Parizeauk berehala utzi zion Quebecoko lehen ministro izateari eta Bouchardek hartu zuen kargua. Moderazio honek berak distantzia hartzea behartu du berrikitan Parizeauk argitaratu duen *Pour un Quebec Souverain* liburuan esaten den hainbat gauzatatik. Esaterako, Parizeauk erreferenduma irabaziz gero, independentziaren alde eman nahi omen zituen urratsetatik.

Alferrik dabilta liberal, kontserbadore, sozialdemokrata eta eskuin-eskuineko erreformazale kandarrak. Rene Levesque Quebecoko Alderdiaren sortzaileak garbi esan zuen 1980ko lehen erreferenduma ehuneko 40rekin galdu ondoren: *A la prochaine*. Bigarrengea irabazteko puntuan egon ziren duela bi urte. Oso urte gutxi barru izango da seguruenik hirugarrena. Eta irabazi arte segituko dute, Laval Unibertsitateko filosofoiak irakasle adiskide batek errepikatzen didanez, duela 30 urteko *iraultza lasaia*ren ondotik baldintza materialak jarririk baitaude Quebec subiranoa izateko, Kanadak eskain ditzakeen «berezitasun» guztietatik haruntzago. Horrelako egoera baten aurrean Frantziak bere sostengua emango lioke eta Europako Batasunak ezin jarrera negatiborik hartu, barruan krisiarik sortu gabe, nahiz EEBBen eta Erresuma Batuen jarrera kontrakoa izan.

Ottawako parlamentuan Ontarioko liberalek agintzen dute, baina ez nahi bezala. Kanadako jatorrizko biztanle diren herri indioek ez diete itxuraz buruhauste handirik ematen, baldintzarik okerrenetan bizi arren (gogoan izan egoera soziala, maila ekonomikoa, ikasketa maila, osasun maila...), batez ere erreserbetan daudenak. Jakina, hauek ez dute, oro har, boturik eman nahi izaten, eta erraza da hauteskudetik apartatzen dena menperatzea. Lekutan dago Chretien berak duela 30 urte Indioen Arazoetarako ministro zela esandako hura: *Les Indiens doivent avoir le droit de gérer leurs propres affaires au même titre que tout autre citoyen canadien*. Liberalek duten arazorik gordinena Quebecokoa da. Mendebaletik zenbat eta gehiago eraso, orduan eta indartsuago Quebecoko nazionalismoa. Eta, gauzak daudenean daudela, ez dago erdibiderik Ottawa. Montreal hiri garrantzitsua da alor gutietan eta Quebec hirian kultura, unibertsitate eta politikaren artean halako bateratze berezia lortu dute bertako abertzaleek. Eredu on bat denbora eta bitarteko materialak alferrik gastatzen dituzten hainbat eta hainbat herritako abertzaleentzat. ■



Tony Blair Erresuma Batuko lehen ministroa, Ryutaro Hashimoto Japoniakoa, Helmut Kohl Alemaniako kantzelaia, Boris Jeltsin Errusiako lehendakaria, Bill Clinton EEBBetakoa, Jacques Chirac Frantziakoa eta Jean Chretien Kanadako lehen ministroa, Denverren.

TIM BRAKEMEIER / EPA

Errusia Zazpi Handietatik kanpo gai ekonomikoetan

Santerrek euroari buruzko azalpenak eman ditu Denverren

Gai ugari eztabaidatu zituzten atzo Denverren munduko zazpi herrialde industrilizatuenetako estaturu eta gobernuruek eta Boris Jeltsin Errusiako lehendakariak. Edonola ere, Errusiak Zazpi Handien taldean izango duen partaidetza uste baino murriztagoa izango da, arazo ekonomikoetan ez baitu parte hartzerik izango.

Agentziak / Denver



Jende asko inguratu zen Boris Jeltsinen hotelera, hura agurtzera.

ALEXANDER ZEMLIANTXENKO / AP

gai politikoak. Herenegun hasi eta gaur amaituko den Denverko gailurrean, esate baterako, gai politikoak dira aztertuko dituzten gehienak. Errusiak politikaz ariko diren bilkura guztietan parte hartuko du.

Atzo, esate baterako, nazioarteko hainbat arazo aztertu zituzten, besteak beste, Bosnia-Herzegovinako bake prozesuaren nondik norakoak, Ekialde Erdiko gatazkaren egoera, Errusiako erreforma, biztanleriaren zahartzea, terrorismoa eta ingurugiroarekin zerikusia duten hainbat gai.

Gai ekonomikoen ere aritu ziren, batez ere, truke tasez, baina horren gaineko eztabaidak ez zuen luzaro iraun. Aurrez aipatu bezala, Errusiak ez zuen batzar horretan parte hartu. Aitzitik, denbora dezente eman zuten Zazpi Handien taldeko estatuetakoa agintariek Jacques Santer Europako Batzordeko lehendakariak eta Yves Thibault

Finantza komisarioak Europako moneta batasunaz eman zizkien azalpenak entzuten.

EEBBentzat, Kanadarentzat eta Japoniarentzat izan ziren bereziki baliagarri eta interesgarri Santerrek eta Thibaultek euroaren gainean emandako argitasunak, G-7ko osterantzeko lau kideak (Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Italia) Europako Batasuneko kide baitira, eta, ondorioz, oso ondo ezagutzen baitute moneta batasunerako prozesua.

Aitzitik, beste hiru herrialdeak, EEBBak, Kanada eta Japonia oso arduratuta daude euroaren inguruan, eta txanpon berriak nazioarteko merkatuan izango duen eraginaren inguruan. Europako Batasuneko iturrien arabera, Estatu Batuak daude bereziki arduratuta euroarekin, Europako txanpon bakarra igortzen denean dolarrak nagusitasuna galduko duen beldur baitira. X

ZAZPI HANDIEN taldeko (G-7) kide diren estatuak, erakunde horren zeregin berezia nazioarteko ekonomia eta finantza arloaz arduratzea izan behar dela erabaki ondoren, Errusiaren partaidetza ez da Denverko (EEBB) gailurra hasi zenean uste zen bezain garrantzitsua izango. Izan ere, Errusiak ez ditu betetzen G-7en taldeko erabateko kide izateko bete behar diren baldintza ekonomikoak.

Munduko zazpi herrialde industrilizatuenean osatzen dute Zazpi Handien taldea (EEBBak, Kanada, Japonia, Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta Italia), eta Errusia urrun dago estatu horiek duten egoera ekonomiko ona izatetik. Besteak beste, nazioarteko kanpo zorra kudeatzeaz eta hainbat herrialdeko garapen programak finantzatzeaz arduratzen dira Zazpi Handiak, eta Errusiak ez du horretarako behar besteko baliabiderik.

Nolanahi dela, nazioarteko ekonomia eta finantza arloaz arduratzeko sortu zen hasieran Zazpi Handien taldea, baina erakunde horren batzarretan gero eta gehiago ari dira nagusitzen